



linea 2

“mundo sin corazón”

Kaleko olerkariak badirela askotan entzuten dugu, askotan kale bazterretan jendearen joan-etorriak begiratzten dituzten olerkariak dira hauek, miseriak eta pozak beraien olerkietan nahasten dituzte eta galderei erantzunak bilatu gabe, gure belarrietara bidaltzen dituzte errealitatearen kronika laburrak. Horrelakoa da LINEA 2 taldearen musika, Basauriko kaleetan sortutako lau olerkari gazteen bihotz gabeko mundu baten azalpenak.

Musika da talde honen bizitza eta beraien disko berri honetan ere horrela islatzen dute, beraien gitarrak eta eztarriak dira kaleko arazoei kritika zorrotza egiteko hautatutako armarik onenak, betiko rock&rolaren gerizpean eskaintzen dizkiguten hamar abestien bilduma.

Taldea, 2001. urtean sortu zen Basauriko lokal batean eta autoekoiztutako lehen disko baten ondoren, orain 2006.ean, beraien 2.diskoarekin datoz, baga-bigaren eskutik kaleratzen duten "mundo sin corazón" izenekoa.

Diseinuetan ikusten dugun legez, bihotz gabeko mundu batean bizi garelako, kapitalismoaren munduan gaudelako, sentimenduak eta pertsonak orotara gutxi axola duten sistema baten barruan gaudelako, "mundo sin corazón"...

Kontzertu mordoa eman dituzte urte hauetan, askotan egon dira edozein herriko kale bazter batean dagoen taberna horretan jotzen eta askotan ikusleak beraien kantu baten protagonista sentituta dira, hau da beraien musikaren ezaugarria, kaleko olerkari batzuen errealitatea.

Diskoa Boluetako baga-biga estudioetan grabatu zen Kike Mora teknikariaren eskutik, eta kolaborazioen artean "Circodelia" taldeko Victor eta "Atasko" taldeko Fer egon dira beraien ahotsekin.

Geroa? Geroa beraiena da, beti ere mundu zoro honen barruan gauden bitartean.

Diego Muñiz: ahots nagusia, koroak eta gitarra / **Ibai Mingo:** koroak eta gitarra
Borja Marcos: baxua / **Oscar Obregón:** bateria



baga-biga musika ideiak
221 Posta Kutxa - Mungia 48100 Bizkaia
tel. 618 072 076 / 026
info@baga-biga.com www.baga-biga.com